

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1855/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILURENA, 2006ko abenduaren 12koa, Kultura programa (2007-2013) ezartzen duena

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Decisión 1855/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006 por la que se establece el programa Cultura (2007-2013)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 372/1 de 27/12/2006)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Ekintza hauek aplikatzeko, argitaratu egin behar dira)

1855/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILURENA,

2006ko abenduaren 12koa,

Kultura programa (2007-2013) ezartzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren —bereziki Tratatuaren 151. artikuluko 5. paragrafoko, lehen puntua— aztertu dute,

baita Batzordearen proposamena ere,

Eta Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽²⁾ ezarritako prozeduraren arabera,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Funtsezkoa da lankidetzaren eta truke kulturalaren bultzatzea, alde batetik, Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzeko eta sustatzeko; eta bestetik, herritar europarrek beraienak ez diren beste kultura europarrak hobeto ezagutu ditzaten, eta partekatzen duten kultura-ondarearen kontzientzia handiagoa izan dezaten. Lankidetzaren eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna adierazitako moduan sustatzen bada, egiazko errealitate bihurtu daiteke herritartasun europarra, herritar europarrak zuzenean parte hartuko baitute integrazio-prozesuan.

(2) Europako kultura-aniztasuna babesteko eta bertako elementu kultural eta kultura-ondare komunak sustatzeko xedez, politika kultural dinamiko bat egiten

bada, hobetu egingo da Europar Batasunaren kanpo-irudia.

(3) Herritarrak Europaren integrazioarekin bat egin dezaten eta integrazio-prozesu horretan parte har dezaten, beharrezkoa da europarren balio eta sustrai kultural komunak indartzea, horiek baitira beren nortasunaren oinarriak, eta askatasunean, berdintasunean, demokrazian eta gizakiaren osotasunarekiko eta duintasunarekiko errespetuan oinarritutako gizarte baten partaide izateko oinarriak, eta hori guztia Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna guztiz betez.

(4) Beharrezkoa da kultura-sektoreak Europako politika zabalaren eboluzioan parte hartzea eta garrantzi handiagoa izatea. Kultura-sektoreak lanpostu zuzen ugari sortzen du eta, gainera, argi eta garbi dago kulturaren inbertitzen bada garapen ekonomikoak ere gora egingo duela. Horregatik, garrantzitsua da politika kulturalak eskualdeetan, nazioetan eta Europan indartzea. Beraz, kultura-industrien zereginak indartu behar dira, Lisboako estrategia izaten ari den eboluzioari jarraiki, izan ere, sektore horretako gero eta industria gehiagok dute eragina Europako ekonomian.

(5) Halaber, beharrezkoa da herritar aktiboak bultzatzea eta edozein motatako bazterketaren aurkako borrokan aurrera egitea, hala nola, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka. Ahalik eta jende gehien kulturara hurbilduz gero, gizarte-bazterketaren aurka hobeto borrokatuko da.

(6) Tratatuaren 3. artikuluan arautzen du, artikuluko horretan xedatutako jarduerak guztietan, Erkidegoaren helburua dela gizonaren eta emakumearen arteko desberdintasunak desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea.

¹ C 164 EO, 2005.7.5eko, 65. or.

² Europako Parlamentuaren jarrera, 2005eko urriaren 25eko (C 272 E EO, 2006.11.9koa, 233. or.); Kontseiluaren ohiko jarrera, 2006ko uztailearen 18koa (C 238 E EO, 2006.10.3koa, 18. or.); eta Europako Parlamentuaren jarrera, 2006ko urriaren 24koa (ez da oraindik argitaratu Egunkari Ofizialean). Kontseiluaren 2006ko abenduaren 11ko Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Caleidoscopio, Rafael, Ariane, eta gerora egin zen Kultura 2000 bezalako programa kulturalak, 719/96/EE⁽¹⁾, 2085/97/EE⁽²⁾, 2228/97/EE⁽³⁾ eta 508/2000/EE⁽⁴⁾ Erabakiek hurrenez hurren arautzen dituztenek, jarduera garrantzitsuak izan ziren, Erkidegoan jarduera kulturalak abian jar zitezten. Jarduera horiekin guztiekin esperientzia handia lortu da, bereziki, programa kultural horiek ebaluatzeari esker. Erkidegoak jarduera kulturala arrazionalizatzeko eta indartzeko garaia iritsi da, honako hauek oinarri hartuta: ebaluazioen ondorioak, alderdi interesatu guztiek egindako kontsulten emaitzak eta erakunde europarren lanak. Beraz, beharrezkoa da arestian aipaturiko guztirako programa bat egitea.

(8) Europako erakundeek behin eta berriz mintzatu dira Erkidegoko ekintza kulturalari eta lankidetzak kulturalako erronkei buruz: bereziki, Kontseilua, 2002ko ekainaren 25eko Ebazpenean, kulturaren arloan Europak lankidetzan jarduteko lan-plan berri bat egiteari buruz⁽⁵⁾, eta 2002ko abenduaren 19koan, berriz, kulturaren arloan Europak lankidetzan jarduteko lan-plana betearazteari buruz⁽⁶⁾; Europako Parlamentua, 2001eko irailaren 5eko Ebazpenean, Europar Batasuneko lankidetzak kulturalari buruz⁽⁷⁾, 2002ko otsailaren 28koan, Kultura 2000 programa ezartzeari buruz⁽⁸⁾, 2002ko urriaren 22koan, zabalduko Europar antzerkiak eta ikuskizun-arteak

duten garrantziari eta dinamismoari buruz⁽⁹⁾, eta 2003ko irailaren 4koan, berriz, industria kulturalari buruz⁽¹⁰⁾; eta Eskualdeetako Komitea, berriz, 2003ko urriaren 6ko irizpenean, Kultura 2000 programaren luzapena ezartzeari buruz.

(9) Aipatu Ebazpenetan, Kontseiluak behin eta berriz azpimarratu du, alde batetik, beharrezkoa dela Erkidegoan kulturaren ikuspegi koherenteagoa izatea, eta bestetik, balio erantsi europarra oinarritzko kontzeptua eta aldi berean erabakigarria dela Europako lankidetzak kulturalerako, bai eta Erkidegoaren ekintzen baldintza orokor bat ere alor horretan.

(10) Europako herrirentzako gune kultural komuna egia bihurtzeko, garrantzitsua da, alde batetik, eragile kulturalak nazioz haraindi mugi daitezten sustatzea, bai eta bestetik, antzezlan eta produktu artistiko eta kulturalak nazioz haraindi zabaldu daitezten bultzatzea ere, eta, azkenik, elkarriketa eta truke kulturalaren alde egitea.

(11) Kontseiluak, Europako Parlamentuak eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak beren ikuspuntuak azaldu zituzten, ikus-entzunezkoak ez beste industria kulturalari dagokienez, ezaugarri ekonomiko eta sozial zehatzak kontuan gehiago hartzeko beharri buruz; Kontseiluak 2004ko azaroaren 16ko kultura arloko lan-programari buruzko (2005-2006) ondorioetan egin zuen hori; Europako Parlamentuak, industria kulturalari buruzko 2003ko irailaren 4ko ebazpenetan; eta Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak, Europako industria kulturalari buruzko 2004ko urtarrilaren 28ko irizpenean. Gainera, programa berrian aintzat hartu beharko lirake 2002 eta 2004 urteen bitartean kulturaren elkarlanean jarduten prestatzeko ekintzak.

(12) Ildo horretatik, eragile kulturalen artean lankidetzak handiagoa sustatu nahi da urte anitzeko lankidetzak proiektuak egin ditzaten honako hauek lortzeko: elkarrekin jarduerak abian jartzea; ekintza zehatzagoak eta Europaren egiazko balio erantsi gehiago dutenak sustatzea; ikuskizun kultural ospetsuei laguntza ematea; kultura arloan lankidetzak sustatzen duten erakunde europarrak babestea; eta analisi-lanak sustatzea, Europarentzat interesa duten gai jakinei buruz, bai eta informazioa biltzeko eta zabaltzeko jarduerak egitea

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1996ko martxoaren 29ko 719/96/EE Erabakia, Europako jarduera artistikoak eta kulturalak laguntzeko programa ezartzen duena (Caleidoscopio) (L 99 EO, 1996.4.20koa, 20.or.). Erabaki horren azken aldaketa 477/1999/EE Erabakiak ezarri zuen (L 57 EO, 1999.3.5, 2. or.).

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko urriaren 6ko 2085/97/EE Erabakia; horren bidez laguntza-programa bat ezartzen da, itzulpena barne, liburuen eta irakurketaren arloan (Ariane) (L 291 EO, 1997.10.24koa). Erabaki hori 476/1999/EE Erabakiak aldatu zuen (L 57 EO, 1999.3.5ekoa, 1. or.).

³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko urriaren 13ko 2228/97/EE Erabakia; horren bidez Erkidegoko ekintza-programa bat ezartzen da, kultura-ondarearen arloan (Rafael) (L 305 EO, 1997.11.8koa, 31. or.). Erabaki hori 508/2000/EE Erabakiak indargabetzen du (L 63 EO, 2000.3.10ekoa, 1. or.).

⁴ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko otsailaren 14ko 508/2000/EE Erabakia; horren bidez «Kultura 2000» programa ezartzen da (EO L 63, 2000.3.10ekoa, 1. or.). Erabaki horren azken aldaketa Kontseiluaren 885/2004 Erregelamenduak (EE) ezartzen du (L 168 EO, 2004.5.1ekoa, 1.or.).

⁵ C 162 EO, 2002.7.6koa, 5. or.

⁶ C 13 EO, 2003.1.18koa, 5. or.

⁷ C 72 E EO, 2002.3.21koa, 142. or.

⁸ C 293 E EO, 2002.11.28koa, 105. or.

⁹ C 300 E EO, 2003.12.11koa, 156. or.

¹⁰ C 76 E EO, 2004.3.25koa, 459. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ere, eta Europako lankidetzak kulturalari eta Europako politika kulturalaren garapenari buruzko proiektuek ahalik eta eragin gehien izateko jarduerak egitea.

(13) 2007tik 2019ra arte «Europako Kulturaren Hiriburua» adierazpenaren aldeko Erkidegoaren ekintza ezartzen duen 2006ko urriaren 24ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1622/2006/EE Erabakia oinarri hartuta⁽¹⁾, komeni da adierazpen horretarako finantzazio garrantzitsu bat ematea, izan ere, adierazpen horrek ospe handia du europarren artean eta gune kultural komun bateko kide izatearen sentimendua indartzen du. Adierazpen horren ildotik, nazioz haraindiko kultura arloko lankidetzak azpimarratu behar da.

(14) Komeni da Europako lankidetzak kulturalaren alde egitea eta Europako kulturaren enbaxadore gisa lan egiten duten erakundeek laguntzea, eta hori guztia kultura-arloan Europan erakunde aktiboak sustatzeko Erkidegoko ekintza-programa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21ko 792/2004/EE Erabakiaren⁽²⁾ esparruan Europar Batasunak jasotako esperientzia aprobetxatuz.

(15) Beharrezkoa da programak, adierazpen-askatasunaren kontzeptua aintzat hartuta, Europar Batasunari laguntzea garapen iraunkorra eta edonolako diskriminazioen aurkako borroka sustatzen.

(16) Europar Batasunean sartu behar diren herrialdeak eta EEKko Hitzarmenaren kide diren EFTA herrialdeak partehartzaile garrantzitsuak izango dira Erkidegoaren programetan, herrialde horiekin egindako hitzarmenei jarraiki.

(17) Salonikan, 2003ko uztailaren 19an eta 20an egin zen Kontseilu Europarrean, «Mendebaldeko Balkanetako herrialdeentzako programa: Europako gizarteratzean aurrera» izeneko programa ezarri zen, eta, bertan, Erkidegoko programetan Egonkortze eta Atxikitze prozesuan dauden herrialdeak ere kontuan izan behar direla aurreikusten da, Erkidegoak eta herrialde horiek sinatu beharko dituzten esparru-akordioaren arabera. Hala nahi izanez gero, eta aurrekontuen edo lehentasun politikoaren arabera, herrialde horiek programan parte hartu ahal izango dute, edo, bestela, mugatuagoa den lankidetzak-formula bati

atxiki, alderdi interesatuek hitzartu beharko dituzten kreditu osagarrietan eta modalitate jakin batzuetan oinarrituta.

(18) Programan hirugarren herrialde batzuek ere lankidetzan jardun ahal izango dute, baldin eta kultura-arloa barne hartzen duten hitzarmenak Erkidegoarekin sinatu badituzte, beharrezkoa den momentuan xedatuko diren modalitateen arabera.

(19) Erkidegoko ekintzaren balio erantsia indartzeko, beharrezkoa da koherentzia eta osagarritasuna bermatzea Erabaki honen esparruan burututako ekintzen eta beste baliabideen, politiken eta Erkidegoko ekintzen artean, Tratatuen 151. artikuluko 4. paragrafoa errespetatuz. Kontuan izan behar da, alde batetik, kultura eta hezkuntza arloko Erkidegoaren ekintzen interkonexioa, eta bestetik, praktika egokien trukea eta Europan lankidetzak handiagoa sustatzen dituzten ekintzak.

(20) Erkidegoko laguntza praktikan jartzeari dagokionez, komeni da kontuan izatea Europako kultura-sektorearen jatorri zehatza eta, bereziki, administrazio- eta finantza-prozesuak, ahal den heinean, sinplifikatzeaz arduratu behar da, eta lortu nahi diren helburuetara horiek egokitzeaz, bai eta praktika egokietara eta kultura-sektoreko eboluziora.

21) Batzordeak, estatu kideek eta harremanetarako gune kulturek lan egin behar dute, alde batetik, urte antzeko lankidetzak-proiektuetan eragile txikiek parte har dezaten sustatzeko, eta bestetik, proiektuetarako kide berri posibleak biltzeko ekintzak antolatzeko.

(22) Programak ezaugarri jakin batzuk izan behar ditu eta Europa guztiko eragile kulturen ezagutza zehatzak bildu. Beharrezkoa denean, Batzordeak eta estatu kideek neurriak hartuko dituzte, estatu kide batetik edo programan parte hartzen duen herrialde batetik eragile kulturel gutxiak parte hartzen badu.

(23) Komeni da bermatzea, Batzordearen eta estatu kideen elkarlanarekin, programaren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo dela, modu horretan, egokitzeak egin ahal izateko, bereziki, neurriak aplikatzeko lehentasunez buruzkoak. Ebaluazioak kanpo-ebaluazio bat barne hartuko du, erakunde independenteak eta inpartzialek egindakoak.

¹ C 304 EO , 2006.11.3koa, 1. or.

² C 138 EO , 2004.4.30koa, 40. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(24) Programa ikuskatzeko eta ebaluatzeko prozesuen helburuak eta adierazleak zehatzak, neurgarriak, egingarriak, berezileak eta egokiak izango dira.

(25) Iruzurrak eta irregulartasunak saihesteko eta galdutako funtsak, gaizki ordaindu direnak edo gaizki erabili direnak, berreskuratzeko neurri egokiak ezarriko dira.

(26) Egokia da lankidetzak kulturalerako, finantzazio eta programazio bakarreko baliabidea izatea, 2007ko urtarrilaren 1etik hasi eta 2013ra artekoa, hau da, «Kultura Programa» izenekoa.

(27) Erabaki honek, programak irauten duen denbora guztirako, finantza-zuzkidura bat ezartzen du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aurrekontu diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzko 2006ko maiatzaren 17ko erakundearen arteko Hitzarmeneko 37. puntuaren arabera⁽¹⁾, aurrekontu-agintaritzarentzako erreferentzia pribilegiatua izateko urteko aurrekontuaren prozesuari dagokionez.

(28) Beharrezkoa izanez gero, neurriak hartuko dira Erabaki hau betearazteko, Batzordeak dituen betearazteko eskumenen prozesuak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiarekin bat etorriz⁽²⁾.

(29) Erabaki honetako finantzazioa betearazteko beharreko neurriak honako arau hauek xedatzen dutenaren arabera ezarriko dira: batetik, Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) Europako Erkidegoan aurrekontu orokorrari aplikatu dakiokeen Finantza Erregelamenduari buruzkoa⁽³⁾ (hemendik aurrera «Finantza Erregelamendu» deituko zaio); eta bestetik, 2342/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) garatzen duen arauari buruzkoa⁽⁴⁾.

(30) Lankidetzak kulturari buruzko Erkidegoko ekintzak nazioetan edo eskualdeetan egindako horien osagarriak izango dira. Erabaki honetako helburuak,

hots, gune kultural europarra sustatzea gure herentzia kultural komunean oinarrituta (Europar eragile kulturalen nazioaz haraindiko mugikortasuna, produktu eta artelan kulturalak eta artistikoak nazioaz haraindi zirkulatzea eta kulturen arteko elkarrizketa), ezin dituzte behar bezala lortu estatu kideek, izan ere, nazioaz haraindiko helburuak izaki, ekintzaren dimentsioak eta ondorioak handiegiak dira. Hala ere, helburuak Erkidego mailan lortu daitezke; Erkidegoak neurriak har ditzake Tratatuaren 5. artikuluan xedatutako subsidiariorotasun-printzipioan oinarrituta. Artikulu horretan adierazitako heinekotasunaren printzipioaren arabera, Erabaki honek ez du beharrezkoa baino haratago joko helburu horiek lortzeko.

(31) Komeni da aldi-baterako xedapenak aurreikustea honako Erabaki hauek ezarritako programen arteko trantsizioa errazagoa izateko: alde batetik, 508/2000/EE eta 792/2004/EE Erabakiek ezarritako programak, eta bestetik, Erabaki honek ezartzen duen programa.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

1. artikulua

Programa ezartzea eta horren iraupena

1. Erabaki honek Kultura programa ezartzen du, urte anitzeko programa bakarra, sektore kulturek eta kategoriatan eragile kultural guztiek kulturalarloan Erkidegoan ekintzak egiteko (hemendik aurrera «Programa» deituko zaio).

2. Programa 2007ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2013ko abenduaren 31ra arte aplikatuko da.

2. artikulua

Aurrekontua

1. Programak, 1. artikuluan aipatutako epean betetzeko, 400 milioi euroko finantza-zuzkidura izango du.

2. Aurrekontu-agintaritzak urteko kredituak emateko finantza-esparrua izango du kontuan.

3. artikulua

Programaren helburuak

¹ C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

² L 184 EO, 1999.7.17, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak aldatzen du (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11.or.).

³ L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

⁴ L 357 EO, 2002.12.31koa, 1.or. Erregelamendu horren azken aldaketa 1248/2006 Erregelamendua (EE, Euratom) ezartzen du (L 227 EO, 2006.8.19koa, 3.or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Programaren helburu orokorra gune kultural bat sustatzea da, europarrek elkarrekin konpartituko dutena eta herentzia kultural komunean oinarritutako dena. Horretarako, Programan parte hartzen duten sortzaileen, eragile kulturalen eta erakunde kulturalen artean lankidetzak sustatuko da kultura arloan, egiazko hiritar europarrak sortzea lortzeko asmoz. Programan honako hauek parte hartu ahal izango dute: ikus-entzunezkoak ez diren kultura-industriek, bereziki, enpresa kultural txikiak, baldin eta industria horiek irabazteko asmorik gabeko industria kultural gisa jarduten badute.

2. Programaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- a) eragile kulturalak nazioaz haraindi mugi daitezen sustatzea;
- b) obra eta produktu artistikoen eta kulturek nazioaz haraindi zirkulatu dezaten sustatzea;
- c) kulturen arteko elkarriketaren alde egitea.

4. artikulua

Programaren ekintza-ildoak

1. Programaren helburu orokorrak eta zehatzak betetzeko, honako ekintza hauek jarriko dira abian (eranskinean deskribatzen dira):

a) ekintza kulturei laguntzea, hala nola,

— urte anitzeko lankidetzak-proiektuak,

— lankidetzak-ekintzak,

— ekintza bereziak;

b) kultura-arloan Europako erakunde aktiboak babestea;

c) analisi-lanak eta informazioa biltzeko eta zabaltzeko lanak babestea, bai eta proiektuen eragina ahalik eta handiena izaten laguntzen duten jarduerak, lankidetzak kultural europarrari buruzkoak eta Europako politika kulturala garatzen laguntzen dutenak.

2. Ekintza horiek Eranskineko xedapenei jarraiki egingo dira.

5. artikulua

Hirugarren herrialdeentzako xedapenak

Programan honako herrialde hauek hartuko dute parte:

a) EFTAko herrialdeak, EEE Hitzarmenean xedatutakoaren arabera, EEEko kide badira.

b) Europar Batasunera atxiki aurretik estrategia bat duten herrialde hautagaiak, Hitzarmenean xedatutako Erkidegoko programetan ezarri zitzaizkien parte hartzeko oinarriko printzipio eta baldintza eta modalitate orokorre jarraiki.

c) Mendebaldeko Balkanetako herrialdeak, Erkidegoko programetan parte hartzeko ezarri zitzaizkien modalitateei jarraiki.

Baldin eta aurreikusitako baldintzak betetzen badira eta kreditu osagarriak ordaintzen badira, atal honetan aipatutako herrialdeek Programan parte hartuko dute bete-betean.

2. Programa honetan beste hirugarren herrialde batzuek ere lankidetzan jardun ahal izango dute, baldin eta Erkidegoarekin elkartzeko eta lankidetzarako hitzarmenak sinatu badituzte, klausula kulturalak dituztenak, eta adostuko diren kreditu osagarriekin eta modalitateekin bat etorri.

1. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako Mendebaldeko Balkanetako herrialdeetako batek Programan parte hartu nahi ez badu, Programarekin lankidetzan jardun ahal izango du paragrafo honetan aurreikusitako baldintzetan.

6. artikulua

Nazioarteko erakundeekin lankidetzak

Programa honetan parte hartu ahal izango dute kultura arloan lan egiten duten nazioarteko erakundeak, hala nola, UNESCOk edo Europako Kontseiluak, zerga berdinak ordainduz eta instituzio eta erakunde bakoitzari ezarritako arau berdinak betez 4. artikuluan aurreikusitako ekintzak egiteko.

7. artikulua

Erkidegoko beste tresna batzuekiko osagarritasuna

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Batzordeak Programaren eta Erkidegoko beste tresna batzuen bidez antolakuntza-lanak bermatuko ditu, batik bat egituratutako Funtsenak eta honako alor hauetakoak: hezkuntza, lanbide-heziketa, ikerketa, informazioaren gizartea, herritartasuna, gazteria, kirolak, hizkuntza, gizarte-bazterkeria, EBko kanpo-harremanak eta diskriminazio-mota guztien aurkako borroka.

8. artikulua

Aplikazioa

1. Batzordeak Programaren helburu diren Erkidegoko ekintzen aplikazioa bermatuko du, Eranskinean xedatutakoari jarraiki.

2. Jarraian aipatuko diren neurriak 9. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kudeaketa-prozedurari jarraiki hartuko dira:

a) urteko lan-plangintza, lehentasunak, hautatzeko irizpideak eta prozedurak barne hartuta;

b) Programaren ekintzentzako urteko aurrekontua eta funtsen banaketa;

c) Programaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko neurriak;

d) Erkidegoaren finantza-laguntza 4. artikuluko, 1. paragrafoko a) idatz-zatiko, lehen puntuari jarraiki: zenbatekoa, iraupena, banaketa eta onuradunak.

3. Erabaki hau aplikatzeko hartu behar diren beste neurri guztiak 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontsulta-prozedurari jarraiki hartuko dira.

9. artikulua

Komitea

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.

2. Honako atal hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikuluko izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa ikusita.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.

3. Honako atal hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikuluko izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa ikusita.

4. Komiteak bere barne araudia onartuko du.

10. artikulua

Harremanetarako gune kulturalak

1. Harremanetarako gune kulturalak, Eranskinaren 1.3.1. puntuan definitzen diren bezala, organo betearazleak izango dira eta Programari buruzko informazioa nazio-mailan banatzeaz arduratuko dira, Finantza Erregelamenduaren 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

2. Harremanetarako gune kulturek honako irizpide hauek jarraitu beharko dituzte:

a) langile nahikoa izatea, gune kulturalen lanarekin lotutako prestakuntza dutenak eta nazioarteko lankidetzaren inguruko lanari egokitutako hizkuntza-prestakuntza dutenak;

b) azpiegiturak egokiak izatea, bereziki, informazio- eta komunikazio-teknologiei dagokienez;

c) testuinguru administratibo batean lan egitea, beren funtzioak behar bezala betetzeko eta interesen arteko gatazkak saihesteko.

11. artikulua

Finantza-arloko xedapenak

1. Finantza-laguntzak pertsona juridikoei diru-laguntzen bidez emango zaizkie. Kasu batzuetan, pertsona fisikoei bekak eman ahal izango zaizkie Finantza Erregelamenduaren 114. artikuluko 1. paragrafoaren arabera. Batzordeak gehigarriak eman ahal izango dizkie pertsona fisiko nahiz juridikoei Programaren inguruko proiektuak edo ekintzak egin badituzte. Ekintza-motaren arabera, baimena izango dute oroharreko prezioko finantzazioak jasotzeko edo kostu unitarioen baremoak aplikatzeko.

2. Onuradunen ezaugarrien eta ekintza-motaren arabera, Batzordeak erabakiko du ekintzak edo lan-programak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egiteko eskatzen diren eskumenak eta langileen prestakuntzak egiaztatu behar dituzten edo ez.

3. Laguntzak edo gehigarriak eman ahal izango dira 1419/1999/EE Erabakian xedatutako Europako Kulturaren Hiriburuek ekintza jakin batzuk egiteko.

12. artikulua

Erkidegoko beste helburu batzuetarako laguntza

Programak Erkidegoaren zehar-helburuak bultzatzen lagunduko du, bereziki:

- a) adierazpen-askatasunaren oinarritzko printzipioa sustatuz;
- b) garapen iraunkorrean parte hartzea garrantzizkoa dela kontzientziatzea bultzatuz;
- c) Europar Batasunean elkarri ulertzea eta tolerantzia bultzatzen saiatuz;
- d) sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen edozein diskriminazio desagerrarazten lagunduz.

Bereziki hartuko dira kontuan Programaren eta Erkidegoko politiken arteko koherentzia eta osagarritasuna hirugarren herrialdeekin kulturaren arloan lankidetzan jardutean.

13. artikulua

Jarraipena eta ebaluazioa

1. Batzordeak aldizka Programari buruzko jarraipen-lanak egingo ditu bertan xedatutako helburuak betetzen direla bermatzeko. Jarraipen- eta ebaluazio-prozesuaren emaitzak Programan aplikatuko dira.

Jarraipen horrek batik bat egingo diren txostenak barne hartuko ditu, hain zuzen ere, 3. paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan aipatzen direnak.

Jarraipen-txostenetako emaitzak oinarri, Programaren helburu zehatzak berrikusi ahal izango dira Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozedurari jarraiki.

2. Batzordeak aldizka ebaluazio bat egingo du, Programaz kanpokoa eta independentea dena.

3. Batzordeak honako hauek aurkeztuko dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari:

- a) beranduenez 2010eko abenduaren 31an, bitarteko ebaluazio-txostena, lortutako emaitzei buruzkoa eta Programa aplikatzeko aspektu kuantitatibo eta kualitatiboari buruzkoa;
- b) beranduenez 2010eko abenduaren 31an, jakinarazpen bat, Programaren jarraipenari buruzkoa.
- c) beranduenez 2015eko abenduaren 31rako, ex post ebaluazio-txosten bat.

14. artikulua

Aldi-baterako xedapenak

2006ko abenduaren 31 baino lehenago abian jarritako ekintzak, 508/2000/EE eta 792/2004/EE Erabakien arabera, amaitu arte kudeatzen jarraituko dira, aipatu Erabakietan xedatutakoari jarraiki.

508/2000/EE Erabakiko 5. artikuluan definitutako Komitea ordezkatu egingo da Erabaki honetako 9. artikuluan xedatutako Komitearekin.

15. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Erabaki hau.

Estrasburgon egina, 2006ko abenduaren 12an.

<i>Europako Parlamentuaren izenean Presidente</i>	<i>Kontseiluaren izenean Presidentea</i>
---	--

J. BORRELL FONTELLES	P. LEHTOMÄKI L
----------------------	----------------